

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

253/2026 Foru Agindua, maiatzaren 18koa. Ogasun Zuzendaritzako Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuari atxikitako zerga agenteen arduradun ikuskatzailearen lanpostua (kodea: 1130.001) berariazko lehiaketa sistema bidez hornitzeko deialdiaren ebazpena

Martxoaren 11ko 147/2026 Foru Aginduz (martxoaren 20ko ALHAOko 34. zenbakian argitaratua), deialdia egin zen Ogasun Zuzendaritzako Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuari atxikitako zerga agenteen arduradun ikuskatzailearen lanpostua (kodea: 1130.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko.

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, balorazio organo teknikoak proposatzen du lanpostu hori Luis Javier Martínez de Lafuente Gaviñari esleitzea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Luis Javier Martínez de Lafuente Gaviña behin betiko atxikitzea Ogasun Zuzendaritzako Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren zerga agenteen arduradun ikuskatzailearen lanpostura (kodea: 1130.001), hango eginkizunak betetzeko.

Bigarrena. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 98.6 artikularekin bat etorritik, lehiaketaren bidez postua lortzen duten funtzionarioek ezingo dute hurrengo bi urteetan deitutako deialdietan parte hartu. Nolanahi ere, denbora muga hori ez da aplikatuko funtzionarioek lanposturako adskripzioa galduz gero lanpostutik mugiarazi dituztelako edo lanpostua ezabatu delako.

Hirugarrena. Jatorrizko lanpostua 2026ko maiatzaren 25ean utziko du.

Laugarrena. 2026ko maiatzaren 26an jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 18a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR